

IRU BIZIPIDE

Lur gainean bizi gara. Ta guk euskaldunok be emen dogu lurralde panpotsa, bizi izateko nunbait, mendi, lau, ibar, muiño; Kantauri itxasoa ur, mendi zakarren kukutzak goi. Euskalduna ementxe bizi izan da beti, gizaldirik gizaldi. Aurrerantzean be, emen biziko ete? Mundua biziro aldatuaz doa-ta... baezpada be.

Gaur askotxo aldatuak izan arren, lenago artzaintza, arraintza ta nekazaritza ziran gure bizipide edo ogibide bakarrak. Antxiña be ba-ziran olazar batzuk, baiña gaur lango lantegi, pabrika, olaita bear-lekurik inolaz bez; ez ke ez auts, etzan lenago olakorik; ibai ta errekatxoak, ostera, kristala baizen garden ta diztikor joiazan, beti surmur ta marmarti. Ta orreitan lepo-txingar ebiltzazan arrankari saltariak? Areik bai guri sabeletan gili-gili gozoa sortu! Gaurkoz, ostera, zein loi ta zikin daukaguzan euskal lur-gaiñeko ibai ta errekarik geienak! Noiz zentzunduko ete gara?

Antxiñatik geure-geure ditugun iru bizipide oneitan bi beintzat oso arriskuan daukaguz: artzaintza ta nekazaritza. Gizona, lurra-
ren lenengo aroetatik, artzaintzatik bizi izan da geienbat; gure mendi ta ibarrak be, lenago, ardi zuriz zoragarri agertu'oi ziran; gaur, batez be mugaz emendik, beera, amilbeera doakigu artzaintza. Gorbei, Aizkorri, Urbia, Urbasa, Aralar, Ibañeta, oraindik be arditoki bikainak; alan be, gitxituaz doaz geldika geldika, bai ardi bai artzain. Gure "Joanes" antzeko artzain giarrak! Ames ete bakarrik? Beiñolako euskaldunen ogibide ori, ez ete dau barrero be lenera-nai bizi batek sorginduko?

Arrantzu-arloan dabiltzan gure itxas-gizon maiteak, naiz-ta zeregina neketsuan jardun, eztabiltz orren gaizki; euren kezka ta larrialdiak ba-ditue, baiña bai aurrera jo be, beti gogo gartsu ta buru-zut. Mundua aurrera doa, egikera edo teknika kontuan batez be. Gure arrantzaleak, txiki ta aundi, aurrerakuntza orreik onartu ta euren esku arteko tresna, tramankulu ta makiñak ia osoan berriturik, gaur irabazi ederrak eskuratuaz, naikoa eroso bizi dira gure itxas-aldeko uri ta erritxoetakoak. Izango dira, eta nun ez? orreian artean be istillu ta goraberak; baiña, geienez beintzat, egoki, eraz ta ondo bizi dira. Ta txalogarri ditugu orretan.

Iru bizimodu ontatik atzeratuen, nekazaritzan, lur-lanean gabiltzala esan bear. Gaur, tamalez, arrisku aundian ikusten dogu baserri-bizitza, gure euskal etxe ta lurak, gure solo ta okuilluak. Eta kezka gorria sortu da au dala-ta. Eztago txarto, kezka beti be onaren iturri dalako. Jakitunak bildur dira, gure euskaltasunaren ezaugarrietan bat bikain-baikaiña doguna betiko amaituko ete yakunaren bildur. Basarritarrak bildur dira; euren bizilekuak, etxe ta lur, betiko suntsituko ete? Basetxe asko beintzat utsituaz doaz. Beeko bizimodua eroso ta atsegiñago yaku antza, ta mendi-egaleko aiotetxe zuria bertan bera lagarik, beeko kezulo artean sartzen gara. Or zagoz gero, muiño ertzeko baserri maite, uts ta bakar; asi ta sastrakaz heterik, len solo mamor ziran leku aberatsak. Oi, baserri, euskal baserri!

Alan be, geure baserri-bizitza zaindu ta babestu bearrean gagoz. Ortixik yatorku zegaz bizia. Lur-lanetik bizi dira Laterri edo Estadu aberatsenak. Lurra dogu miñarik eder ta jorieta; Jainkoak lurra emon eutson gizonari lantzeko. Lurra dogu ondasun-iturri berezia; lurra, bertako gari, arto, indaba, bedar ta barazkiz osaindua.

Egia esan, gure baserrietako lan-era ta gaiñerakoak barriztu ta odara ipiñi bearra daukie. Mundua eztago gaur atzera begira, aurrera doia arlo guztietan; aurrerakuntza au ondo datorkigu: zertarako daroagu burua lepo gain, su-txinpart izateko nunbait. Gure baserrietako tresna, makiña ta lankaiak, alan be, batek ba-daki ezkoak diran. Oneik barriztu bear dira; zartasunez ugarturiko ramintak albora itxi edo urtu, ta gaurkotasunez jantzitakoak auratu. Baserri-bizitza erazkoago ta neke gitxiagoko egin: izerdi xiagoz, irabazi geiago. Baserritarrak erosoago bear egiñaz alaiabizi daitezcan, orretarako bear diran aurrerapenak bazter guztietan sartu.

Len areitz, ametz, pago ta gartain gure mendietako apaingarri; ur piñu ta letrando yaraia dagu. Ta zenbat aberastasun Bizkai Gipuzkoa'ko mendietan! Beste ainbeste, zegaitik ez egin gure o, landa ta baratza? Barriztu, bai, barriztu!